

EUROPAKO FUNTSAK ERAKUNDEAN KUDEATZEKOAN INTEGRITATEZ JARDUTEKO PROTOKOLA

I.-

Europar Batasunaren 2018ko Finantza Erregelamenduak, batetik, zenbait aurreikuspen ditu finantza-kudeaketa onaren printzipioa babesteko agintaritza nazionalak (estatukoak, autonomikoak edo tokikoak) beren aurrekontutik eta Batasunaren finantza-baliabideetatik datozen funtsen kudeaketa partekatua egiten duten eremu guztietan; eta, bestetik, kudeaketa-prozesu horietan sor daitezkeen interes-gatazken kontzeptua eta aplikazioa zabaldu ere egiten du.

Bestalde, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak etengabe aipatzen du suspertze-tresna horri lotutako Europako funtsen kudeaketan estatu kideek Batasunaren finantza-interesak zaindu eta babestu beharko dituztela, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek prebenitu, detektatu eta zuzentzeko neurriak hartuz. Bereziki garrantzitsua da erregelamendu horren 22. artikuluan jasotako erregulazioa; izan ere, estatu kideek eta, beraz, hura osatzen duten erakunde guztiek, herrialde bakoitzak aurkeztu behar zuen Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan Europako funtsen kudeaketan parte hartzen badute, hartu behar diren neurri guztiak hartu behar dituzte iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko.

Era berean, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua kudeaketa onaren printzipioak arautzen ditu, eta administrazio publiko guztiei aplikatu beharreko oinarriko arau gisa konfiguratzeko, eta, horietako bat da interes-gatazken, iruzurraren eta irregulartasunen prebentzio eraginkorren printzipioa. Halaber, 21.3 artikuluan, iruzurraren aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalari agintzen dio – organikoki IGAeri atxikita baitago hura eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazteko kontrol-agintaritza ere bai baita–, «Europar Batasunaren finantza-interesak iruzurraren, ustelkeriaren edo legez kanpoko beste edozein jardueraren aurrean babesteko eginkizunak bete» eta iruzurrak prebenitzeko, detektatzeko eta ikertzeko egin behar diren lanak susta ditzala, kudeaketa- eta kontrol-organoekin izan behar diren harremanak izanda horretarako.

Espainiako Gobernuak aurkeztu eta Europako erakundeek bere garaian onartutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak ere jarrita ditu iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek detektatzeko, zuzentzeko eta, hala badagokio, jazartzeko neurri batzuk, jardunbide irregular horiek agertzea prebenitzeko eta, hala, Suspertze Planari lotutako Europako funtsak kudeatzekoan horrelako jardunbiderik ez izateko edo, izanez gero, ahalik eta gehien arintzeko.

36/2020 Errege Lege Dekretuan jasotako aurreikuspenak erregelamendu bidez garatzeko, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duenak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-printzipio espezifikoak arautzen ditu. Printzipio horietan, zeharkako izaera aitortzen du, eta, besteak beste, honako hau aipatzen du berariaz: «Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea».

Arau-datu erabakigarria da printzipio horiek erabat txertatzen direla Europako funtsak kudeatzeko sisteman. Sistema hori Europar Batasunetik datozen baliabideen bidez finantzatutako proiektuak, azpi-proiektuak edo jarduerak egiten dituen edozein erakunde publiko edo pribatuak jarri behar du abian, tresna horien diseinuan eta kudeaketan irizpide homogeneoak izatea bermatzeko. Era berean, agindu horren 6. artikulua iruzurraren aurkako Neurrien Plan bat izan beharra dakar, «plan horren bidez bermatu eta deklaratu ahal izateko, dagokion jarduketaren eremuan, funts horiek aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek prebenitu, detektatu eta zuzentzeko dagokionez». Orobat, Aginduaren II B 5 eranskinak aurreikusten du erakunde bakoitzak autoebaluazio-galdetegi bat egitea (berariaz jasotzen duena erakundeak etika- edo jokabide-koderik ote duen jakiteko galdera edo itema), eta III C eranskinak jasotzen du kultura etikoa garatzeko prebentzio-neurrietan sartzen dela «iruzurraren aurreko jokabide-kode bat ezartzea, hainbat alderdi barne har ditzakeena, hala nola interes-gatazka, opariak, konfidentzialtasuna, salaketa-bideak (salaketa postontzia eta/edo SNCaren salaketa-kanalerako lotura), eta abar».

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretako interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoari buruzko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua indarrean jartzean, plan hori aplikatu behar zaien erakundeek SEEParekin finantzatutako kontratazio-prozesuetan eta dirulaguntzetan interes-gatazka kontrolatzeko Aginduak ezartzen duen prozedura espezifikoa bete beharko dute.

Integritate-mekanismoak indartzeko eskakizuna item gisa sartuta dago, halaber, proiektuak eta azpi-proiektuak egikaritzearen jarraipen- eta kontrol-prozesuan, prozesuaren fase batean baino gehiagotan, eta, bereziki, kudeaketa-txostenean (10. artikulua) eta betetze-adierazpenean (12. artikulua). Adierazpen horretan, berariaz ziurtatu beharko da funtsak aurreikusitako helburuetarako erabili direla ez eze, baita hori egitekoan zorrotz aplikatu direla arau hauek ere: «interes-gatazkek, iruzurra eta ustelkeria eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanisмотik eta

Batasuneko beste programa batzuetatik datorren finantzaketa bikoitza prebenitzeari buruzko arauak, finantza-kudeaketa onaren printzipioarekin bat».

Nolanahi ere, HFP 1030/2021 Aginduan jasotako aurreikuspenek, gai horri dagokionez eta nahitaezkoak diren aurreikuspenak izan ezik (6. artikulua, 4. eta 5. apartatuak, han jasotako salbuespenekin), xedapen-eduki handia dute (batez ere prebentzio- eta detekzio-aldietan), erakunde bakoitzaren ezaugarri espezifikoetara egokitzeko.

II.-

Labur-labur deskribatutako arau-esparruan azaldutakoarekin bat, erakunde honek onartutako Integritatearen eta lruzurraren aurkako Neurrien Planean jarritakoaren barruan, Europako funtsak kudeatzeko Integritate Protokolo hau ere txertatu dugu. Protokoloa tresna osagarri eta zubi gisa egituratzen da, Planean etika- eta jokabide-kode bat edo erakundearen jokabide-kode batzuk onartzeko ezarritako helburuak bete arte). Helburua erakundearen integritate-kultura indartzea da, bai eta Europako funtsak erabiltzeko orduan protokolo honetan kudeaketa etikoa eta finantza-kudeaketa ona indartzeko ezartzen diren balio eta printzipioen interpretazioaz eta irismenaz planteatu daitezkeen arazo, gai etiko, kexa edo salaketei erantzun puntuala ematea ere.

Nolanahi ere, tresna honek ezaugarri bereizgarri batzuk ditu. Adibidez:

- a) Zubi-tresna bat da, osatu egin behar dena, gaur egun aplikatzekoa den kodea berrikusiz edo beste etika- eta jokabide-kode bat (edo batzuk) eginez. Kode horrek, eranskin gisa, Europako funtsen kudeaketa jasoko du, protokolo honetan ezarritakoaren arabera.
- b) Beraz, tresna osatugabea da, balioak eta printzipioak besterik ez ditu jartzen-eta, baina horiei buruz egiten den definiziotik abiatuta, ebatzi daitezke erakundeak Europako funtsak erabiltzeko aurreneko urratsetan sor daitezkeen dilemma etikoak eta arazoak.
- c) Hala ere, erabaki-, zuzendaritza- edo lanbide-eginkizunetan inpartzialtasuna eta objektibotasuna izatea benetan bermatu eta, horrela, interes-gatazkak saihestea edo arintzea lortu ahal izateko, jokabide-arau batzuk ere sartu ditu protokolo honek, pertsona horiek opariak edo esku-erakutsiak jasotzeko mugekin zerikusi handia dutenak, printzipio horiei zorrotz eusteari erasan baitieziokete opariak edo esku-erakutsiek jasotzekak.
- d) Alegia, azaldutako salbuespena kenduta, protokolo honek ez du berariaz jasotzen jokabide- edo jarduketara-aurik, baina balio eta printzipio horietatik egiten den mugaketatik ondoriozta daiteke horietako asko. Horrek erraztu egin dezake berme-organoaren interpretazio- eta aplikazio-lana, funts horien kudeaketan Europar Batasunaren finantza-interesak zinez eta benaz babesteko.
- e) Nolanahi ere –eta hau garrantzitsua da–, erakundeak Europako funtsak kudeatzeko autoerregulazio-tresna espezifikoa da hau, eta horrek berezitasun bat ematen dio kode orokorren aldean; izan ere, kode orokor horiek ezin baitituzte kontuan hartu funts horiek erabiltzeak dituen berezitasunak eta eremu horretan bat egiten duten printzipio espezifikoak.

Integritate Protokolo honek egitura sinplea du:

Lehenik eta behin, Europako funtsak kudeatzeko Integritate Protokoloaren xedea, izaera eta helburuak azaltzen dira. Duen berezitasuna da Suspertze Planetik etorritako jarduketak kudeatzekoan nahitaez kontuan hartu behar diren balio etikoak eta kudeaketa onaren printzipioak ezartzea.

Aplikatu, Europako funtsak erabiltzearen arduradun edo kudeatzaile izanez parte hartzen duten pertsona guztiei aplikatuko zaie, nahiz eta beste erakunde batzuei aplikatzeko bidea ere izango den hala dagokionean; adibidez, Europako funts horiek hartuko dituzten enpresa, elkarte, eragile edo profesionalei (kontratatistak, emakidadunak, diruz lagundutako entitate edo pertsonak eta abar).

Protokoloaren izaera autorregulazio-tresnarena da, nabarmen, eta helburua, berriz, prebentzioa, erakundearen azpiegitura etikoa indartzeko asmoz, batez ere Europako funtsen kudeaketari eragiten dion guztian. Era berean, integritate ikuspegiz eta 2030 Agendak Garapen Jasangarriaren 16. helburuan jarritakoarekin bat txertatu nahi du kudeaketa, erakunde sendoak eraikitzearen alde egiten baitu helburu horrek.

Bigarrenik, erakundeak eta haren arduradun eta enplegatu publikoek Europako funtsak kudeatzekoan gidatarako erabili behar dituzten balio etikoak ezarri dira. Balioen kontzeptu eta helburu batzuk oinarri hartu eta funtsak zuzen erabiltzeko balio nagusiak zein diren ezartzen da gero. Sei puntutan laburbiltzen da balio horiek:

- Integritatea
- Eredugarritasuna
- Zintzotasuna eta interesik eza
- Inpartzialtasuna eta objektibotasuna
- Bikaintasun profesionala
- Errespetua eta enpatia

Balio horiek enuntziatu batzuen bidez mugatzen dira, eta enuntziatu horien bidez balioen irismena definitu nahi da, hartzaileek orientabide bat izateko eta Integritate Batzordeak interpretazio- eta aplikazio-jarraibide batzuk, sor dakizkiokeen gai etiko, dilema, zalantza edo kexei aurre egin behar dienerako.

Hirugarrenik, kudeaketa onaren printzipioak zehazten dira, eta printzipio horiek bideratu behar dute Europako funtsen kudeaketa ere. Printzipioak zer diren eta Europako funtsak erabiltzeko garaian prozesuan zer zentzu eta helburu duten definitu edo kontzeptualki mugatu ondoren, sei printzipio ezarri dira. Hauek dira:

- Kudeaketaren emaitzekin konpromisoa izatea.
- Finantza-kudeaketa ona eta kudeaketa efizientea.
- Gardentasuna.
- Datu pertsonalak babestea.
- 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarriarekin uztartuta kudeatzea Europako funtsak.
- Zuzendaritza- eta lanbide-erantzukizuna izatea Europako funtsen kudeaketan.

Balioekin egin den bezala, printzipio horien zentzua eta irismena definitu edo mugatu egin dira; batetik, Europako funtsak erabiltzeaz arduratzen diren arduradun eta kudeatzaileei halako jarraibide batzuk emateko, eta, bestetik, Integritate Batzordeak elementu batzuk izan ditzan printzipio horiek interpretatu eta aplikatu ahal izateko Europako funtsen eguneroko kudeaketa egitekoan eta horrekin lotuta sortzen diren arazoak ebaztekoan.

Laugarrenik, Protokoloak hainbat irizpide ezarri ditu erakundeen kultura etikoa indartzera bideratutako prestakuntza politikak eta ekintzak gauzatzearen garrantziaz, bereziki Europako funtsen kudeaketari dagokionez, Integritatearen eta Iruzuraren aurkako Neurrien Planean ezarritakoaren ildotik.

Integritate Protokolo honen bosgarren blokea bereziki garrantzitsua da, integritate instituzionalaren edozein esparruren oinarritzko elementuetako bat aurreikusten baitu, bere garaian OCDEk definitu zuen bezala: mekanismo eta prozedurak antolatzea arazo etikoak, dilemak, zalantzak, kexak edo tresna honen aplikazioarekin lotuta planteatzen den beste edozein kontsulta edo intzidentzia konpontzeko.

Baina, era berean, Batasunaren finantza-interes handiak direla jokoan kontuan hartuta, salaketan barne-kanal bat ere antolatu da, alde horretatik behintzat salatzailea babesteko 2019/1937 (EB) Zuzentarautik eratorritako betebeharrak konponbide iragankor bat eman nahi diona. Zuzentzari horren transposizioa Arau-hausteei buruzko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko 2003ko otsailaren 20ko 2/2023 Legean formalizatu zen.

Premisa horiekin, 2023ko maiatzaren 30ean, Gobernu Batzarrak erabaki bat hartu zuen komunikazioak eta salaketak izapidetzeko barneko informazio-sistema bat ezartzeko, xede zuena informazioaren kultura eta erakundeen integritate-azpiegiturak indartzea eta informazioaren edo komunikazioaren kultura sustatzea, interes publikoaren aurkako mehatxuak prebenitzeko eta detektatzeko mekanismo gisa.

Seigarren atala ere garrantzitsua da; izan ere, protokolo honen berme-organo gisa jardungo duen Integritate Batzordea arautzea baitu xede. Batzorde horrek hainbat eskuduntza izango ditu, balioak eta printzipioak Europako funtsen eguneroko kudeaketan erabat aplikatuko direla bermatzeko. Baina, hala berean, bistan diren antolaketa edo erakunde ekonomiako arrazoiak aintzakotzat hartuta, barneko informazio-sistema eta hari lotutako salaketa-kanala kudeatzeko organo gisa jardutea ere esleitu zaio Integritate Batzordeari.

I.- EUROPAKO FUNTSAK KUDEATZEKO INTEGRITATE PROTOKOLOAREN XEDEA, IZAERA ETA HELBURUAK

1.- Xedea

Protokolo honek Europako funtsak kudeatzeko prozesuetan parte hartzen duten arduradunek, kudeatzaileek eta langileek bere egin behar dituzten balio etikoak eta kudeaketa onaren printzipioak ezartzen ditu, finantza-kudeaketa onaren printzipioa bermatzeko eta prozedura horietan Europar Batasunak dituen finantza-interesak zaintzeko.

2.- Protokoloaren aplikazio-eremua

2.1.- Kode hau aplikatuko zaie, bai erantzukizun eginkizunak egiten dituzten pertsoneri, bai eta erakundeari esleitutako Europako funtsak kudeatzeko prozeduretan haien eginkizun batzuk edo eginkizun guztiak betetzen dituzten funtzionarioei edo enplegatu publikoei.

2.2.- Era berean, protokolo hau aplikatuko zaie lizitatzzaileei, kontratistei, azpi-kontratistei eta dirulaguntza deialdietan parte hartzen dutenei ere, eta baita Europako funtsen kudeaketaren esparruan egiten diren kontratazio publiko eta dirulaguntza prozesuetako kanpoko adituei ere; haien jokabide-arauei dagokienez, betiere, eta inpartzialtasuna eta objektibotasuna babesteko asmoz.

3.- Protokoloaren izaera

3.1.- Protokolo hau autorregulazio-tresna prebentibo gisa onartzen da, Europako funtsen kudeaketan integritate-mekanismoak indartzeko.

3.2.- Protokolo hau iragankorra izango da: erakundeak jokabide-kode batzuk onartu arte (balio eta printzipio batzuk izan eta garatuko dituzten kodeak, jokabide-arau eta jardunbide-arau batzuen bidez) edo, bestela, erakundeari aplikatzea dagokion kodea egokitu arte balioko du. (Kode hori eranskin gisa gehituko da). Helburu hori bete bitartean, kode honetan jasotako balioak eta printzipioak aplikatuko dira, Integritate Batzordeak erabakitako baldintzetan, kasu bakoitzean aplikatu beharreko lege eta erregelamendu aurreikuspenak alde batera utzi gabe.

3.3.- Protokoloaren izaera batez ere proaktiboa, prebentziozkoa eta erakundearen azpiegitura etikoa hobetzeko delako kontuan izanik, orientazio axiologikoa du, eta erabakiak hartzen dituzten pertsonen balio publikoak eta, lanbide-jardueretan, deontologia profesionala indartzea xede argi, finantza-kudeaketa onaren printzipioa eta Europako funtsak kudeatzeko orduan Batasunaren finantza-interesak babestearekin batera.

3.4.- Protokoloa Europako funtsak kudeatzeko sisteman txertatzen da, integritate-mekanismoak indartzera bideratutako zeharkako elementu gisa.

3.5.- Protokolo hau egituratzen duten balioek eta printzipioek gidatuko dute Europako funtsen arduradunek eta kudeatzaileek erakunde honetan egiten duten jarduna, eta, Integritate Batzordeak, haien jokabideak edo jarduketak balio eta printzipio horietara egokitzen diren aztertu eta kasu bakoitzean tokatzen diren zuzenketa-neurriak proposatu ahal izango ditu.

4.- Helburua

4.1.- Protokolo honen helburua da Europako funtsak kudeatzekoan diren integritate-mekanismoak indartzea, eta arduradunek eta kudeatzaileek beren eginkizunak egitekoan azpiegitura etiko bat garatzeko bidea izatea sustatzea.

4.2.- Beren eginkizunak egiteko orduan, bai arduradunek, bai eta kudeatzaileek ere, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana aurrera eramateko ekintza guztietan emaitzarekiko konpromisoa betetzen lagunduko dute; eta, era berean, ingurumena kontserbatzea eta hobetzea sustatuko dute, eta 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzea ere bai.

4.3.- Protokolo hau onartzeak Europako funtsak kudeatze aldetik duen helburua da:

- a) Azpiegitura etiko bat garatzea erakundearen, haren zerbitzura diren langileek finantza-kudeaketa onaren printzipioa oinarri hartuta jardun eta, dituzten eginkizunak eta lanak egiteko orduan, eredugarritasunez, objektibotasunez eta bikaintasunez jokatzeko nabarmendu eta sakontzeko modukoa.

- b) Arduradun eta kudeatzaileen orientazio profesionaleko gida izatea, protokolo honetan jasotako balioak eta printzipioak barneratuta eta beren eginkizunetan aplikatuta.
- c) Arduradunen eta kudeatzaileen inpartzialtasun, profesionaltasun, integritate eta zerbitzu irudia indartzea.

II.- BALIO ETIKOAK EUROPAKO FUNTSEN KUDEAKETAN

A. BALIO ETIKOAK

5.- Balio etikoak. Kontzeptua.

5.1.- Protokolo honetan jasotzen diren balioek Europako funtsak erabiltzen dituzten arduradun eta kudeatzaileen erabakiak eta jarduera profesionalak gidatzen eta bideratzen dituzte, kudeaketa efikaza eta efizientea egin ahal izateko, finantza-kudeaketa onaren printzipioan oinarrituta, Europar Batasunaren interesak babesteko erakunde honek haren baliabideak kudeatzen dituenean.

5.2.- Erakundearen arduradunek eta langileek kode honetan jasotako balioak integratu behar dituzte erabakiak hartzeko prozesuetan, jarduera profesionala egitekoan eta Europako funtsak erabiltzekoan hartzen diren prozedura edo kudeaketa-sistema guztietan.

5.3.- Protokolo honetan ezarritako balioek helburu hauek izango dituzte, funtsean:

- a) Printzipio hauek bermatzea: finantza-kudeaketa ona, Europar Batasunaren finantza-interesak babestea eta kudeaketaren emaitzekiko konpromisoa.
- b) Europako funtsen kudeaketan bikintasuna eta objektibotasuna bilatzea, erakundearen estandar etikoak eta emaitzak hobetzeko.
- c) Baliabide publikoak xahutzea edo urritzea eragotzi eta erakundeenganako konfiantza publikoa indartzeko moduko estandar etiko handiz egitea dituzten erantzukizunen, lanpostuen edo enplegu funtzionalen eginkizunak eta zereginak.

6.- Balio etikoak zerrendatzea eta definitzea.

Europako funtsak erabiltzeko orduan parte hartzen duten arduradunek eta kudeatzaileek balio etiko hauetara egokitu behar dute haien jokabide profesionala:

6.1.- Integritatea.

OCDeren arabera, integritatea erakundeak berak ezarritako balio etiko komunei atxikitzean datza, eta interes publikoa interes pribatuen gainetik babestu, eduki eta lehenesteko printzipio eta arau multzo batean islatzen da. Eremu publikoan, eta, zehatzago, Europako funtsen kudeaketan, integritatea funtsezko balioa da, bai Europar Batasunaren finantza-kudeaketa onerako, bai eta haren finantza-interesak babesteko ere. Europako funtsen arduradunen eta kudeatzaileen jokabide etiko tatxagabeak, kudeaketaren emaitzak babestu ez eze, duintasuna ematen dio jarduera publikoari, eta erakundearen irudi eta izen ona eta erakundearekiko konfiantza publikoa sustatzen ditu. Integritateak esan nahi du arduradunek eta kudeatzaileek ezin izango dutela oparirik, esku-erakutsirik, ekitaldietarako gonbidapenik edo dituzten eginkizunak betetzekoan haien objektibotasunari eta inpartzialtasunari eragin diezaiokeen beste ezer jaso. Integritate Batzordeak zehaztuko du, kasu bakoitzean edo gidalerroen bidez, zer zenbatekotan eta zer kasutan onar daitezkeen opariak edo gonbidapenak, horrek Europako funtsen exekuzioaren kudeaketa ona eragotzi gabe, eta erakundearen etika edo jokabide kodeak ezartzen duenaren kontra joan gabe.

6.2.- Eredugarritasuna.

Kargu publikoek, zuzendariek eta enplegatu publikoek Europako funtsen kudeaketan jarduteko duten moduak eragin handia egiten dio erakundearen irudiari eta ospeari. Bereziki, erantzukizun handiko eginkizunak, zuzendaritzakoak edo burutzakoak betetzen dituztenen jardunak lidergo etikoan oinarritu behar du, portaeran eta kudeaketan. Ondorioz, portaera eredugarriak gidatu behar du langileen edozein jokabide publiko; haren erantzukizuna edo jarduera profesionala egitekoan, bereziki, baina, batzuetan, baita esparru publikoaz harago izan daitekeen jokabide pribatua ere. Erakundearen irudiari kalte egin, gaizki eragin edo izen ona zikintzen edo hondatzen duen edozein eredugarritasun-falta da protokolo honetako Integritate Batzordeak proposatutakoaren arabera zuzendu beharko da.

6.3.- Zintzotasuna eta interes falta.

Europako funtsak erabiltzen dituzten arduradunek eta kudeatzaileek egiaz eta gardentasunez bete behar dituzte beren eginkizunak, eta haien jarduera interes publikoa, finantza-kudeaketa ona eta emaitzak betetzeko konpromisoa betetzera bestetara ez dute bideratuko, Batasunaren finantza-interesak zainduz egiten dituzten jardueretan beti. Dituzten funtzioen eta beste interes publiko eta pribatu batzuen artean interes-gatazkarik edo horren itxurarik izanez gero, protokolo honen aplikazio-eremuko langileek berehala jakinarazi beharko diote

hierarkian gorago dagoenari hori, txostena eskatuko dio hark Integritate Batzordeari eta batzorde horrek proposamen bat egingo du ustezko gatazkaz eta, hala badagokio, hartu beharreko neurriez. Pertsona batek, Batzordearen ustez interes-gatazka batek eraginda badago, eraginda izan badaiteke edo eraginda izateko itxura badu, uko egin behar dio dagokion prozeduran edo erabakiak hartzean zuzenean edo zeharka parte hartzeari. Hierarkian gorago dagoena Batzordeak egindako proposamenetik aldentu ahal izateko ebazpen arrazoitua izan beharko da. Protokolo honen aplikazioaren mende dauden langileek Integritate Batzordeari helarazi beharko diote –ezartzen diren bideen bidez– interes-gatazken inguruan sortzen zaien edozein zalantza.

6.4.- Inpartzialtasuna eta objektibotasuna.

Inpartzialtasuna premisa existentziala da sektore publikoko funtzioak eta zereginak behar bezala egiteko, bereziki Europako funtsak kudeatzekoan eta prozesu hori norgehiagokako administrazio-prozeduren bidez bideratzen denean. Nolanahi ere, funtzionarioen eta enplegatu publikoen kudeaketan hartzen du inpartzialtasunak erabateko zentzua, eta Europako funtsak erabiltzekoan objektibotasunak agindu behar du beti. Beraz, protokolo honi lotutako langileek egiten duten edozein jardura profesionalek urrun egon behar du politikarien, senideen edo lagunen eragin eta orientazioetatik, bai eta interes profesional, pertsonal edo bestelakoetatik ere. Inpartzialtasuna eta objektibotasuna bereziki nabarmen izan behar dira protokolo honen eta Integritatearen eta lruzuraren aurkako Neurrien Planaren arabera interes-gatazkarik den aztertu behar denean. Era berean, protokolo honen aplikazio-eremuan diren langileek interes orokorra betetzeak eskatzen duen objektibotasuna erabat errespetatuz jardun behar dute izendatuta dituzten jardura publikoak egitekoan; lehia askearen printzipioei kasu eginez beti, beraz. Objektibotasun hori bereziki handia izango da –kontratazio publikoko edo dirulaguntzetako prozeduretan eta langileak kudeatzeko prozesuetan bezalaxe– protokolo honen mendeko langileek erakundeak kasu bakoitzean aplikatu behar den araudiaren arabera hartu behar dituen erabaki jakin batzuk hartzekoan inpartzialtasuna bermatzea bereziki eskatu daitekeen prozeduretan parte hartu behar dutenean.

6.5.- Bikaintasun profesionala.

Europako funtsak kudeatzea –bai duen espezializazioagatik, bai berekin dakarren finantza eta kudeaketa inplikazio handiagatik– zuzendari eta enplegatu publikoek egin behar dute; profesionaltasuna eta talentua egiaztatuta, kudeaketa-arlo horretan jakintza eta trebetasuna izatea erakutsita edota horretarako berariaz prestatuta diren zuzendari eta enplegatu publikoek. Irizpide horiek kontuan hartu beharko dira eremu horretako erantzukizunak hautatu edo esleitzekoan. Eginkizunak eta zereginak betetzeko, profesionalizazio eta prestutasun irizpideak hartu beharko dira kontuan. Postuak betetzeko edo zuzendaritzako langileak edo arduradunak hautatzeko, erakundean bertan den talentua izango da kontuan. Horretarako, protokolo honen mende diren langileek etengabe garatu eta hobetuko dituzte beren gaitasun profesionalak, eta beren jakintzak eta gaitasunak eraldaketa funtzional eta teknologikoaren eskakizunetara egokituko, erakundeak diseinatzeko dituen prestakuntza-programen bidez, beren profil profesionala optimizatzeko, zaharkitzea saihesteko eta lanpostuari esleitutako eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko. Era berean, lan profesionala emaitzen ebaluazioaren mende egongo da. Kudeaketaren emaitzarekiko konpromisoaren printzipiotik abiatuta, helburuak betetzea saritzen duen ordainsari-osagarri bat izango da, plan estrategikoan xedatutakoaren arabera.

6.6.- Errespetua eta enpatia.

Protokolo honen mende diren langileek Europako funtsen kudeaketari dagozkion eginkizunak eta zereginak bete behar dituztenean, errespetuz eta adeitasunez jokatu dute, bai erakundeko gainerako pertsonekin, bai hornitzaileekin bai eta beste kolektibo batzuekin dituzten harremanetan ere. Lanean, pertsonen artean eta lanbidean bizikidetzara, elkartasuna eta tolerantzia gailenduko diren giroa izatea sustatuko da, elkarrekiko errespetua, aniztasuna eta lankidetzara bultzatuz. Pertsona orok merezi duen adeitasuna, zuzentasuna, errespetua eta duintasuna izan behar dira protokolo honen mende diren langileen jokabide gida. Horrezaz gain, protokolo honen mende diren langileek ez dute mespretxuzko hitzik edo edozein motatako diskriminazio-praktikak erabiltzea dakarren inolako jokabide edo portaerarik izango (bereziki generoari dagokionez, baina baita sinesmenei, ideologiari, sexu-orientazioari, arrazari, desgaitasunari edo beste edozein gairi dagokienez ere).

III.- EUROPAKO FUNTSAK KUDEATZEKO PRINTZIPIOAK

7.- Kudeaketa-printzipioak: kontzeptua.

Europako funtsen kudeaketaren arloko Kudeaketa-Printzipioak zuzentarau-multzo bat dira, eta haien helburua da gida edo orientabide izatea funts horiek erabiltzeari lotutako erantzukizun politikoek, zuzendaritzakoek edo kudeaketakoek ekarritako eginkizunak eta zereginak betetzeko orduan. Haien helburu nagusia da erakundeak egikaritzen dituen proiektu edo azpi-proiektuen mugari eta helburuetan programatutako emaitzak eta helmugak betetzea edo lortzea, bai eta, hala badagokio, kalitatea eta eraginkortasuna etengabe berritzeko eta hobetzeko prozesuak sustatzea esleitutako eginkizunak egitekoan, proposamen horiek emaitzekiko konpromisoaren printzipioan eta finantza-kudeaketa onarenean oinarrituta gidaturik.

8.- Kudeaketa-printzipioak zerrendatzea.

Erakundeko langileek kudeaketa-printzipio hauetara egokitu behar dute beren jarduera profesionala:

8.1.- Kudeaketaren emaitzekin konpromisoa izateko printzipioa.

Europako funtsak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistemaren barruan erabili behar dira, eta, beraz, kudeaketaren emaitzekin konprometitu izateko printzipioan oinarrituta. Plan horren helburuak funts horiek erabiltzeaz arduratzen diren administrazio-unitateetako arduradunek ezarri behar dituzte, haiek ezartzen dituzten jarraibide eta jomugei jarraikiz, kasu bakoitzean ezarritako mugarrak eta helburuak betetze aldera. Zuzendaritzako langileek eta enplegatu publikoek egiten duten Europako funtsen kudeaketa erakundeak ezartzen dituen irizpideen arabera ebaluatu beharko da. Nolanahi ere, kudeaketaren emaitzak finantza-kudeaketa onaren printzipioa erabat betetzearekin eta Europar Batasunaren finantza-interesak babestearekin bateratuko dira.

8.2.- Finantza-kudeaketa ona eta kudeaketa efizientea.

Europako funtsen kudeaketa ekonomikoa finantza-kudeaketa onaren printzipioak gidatuko du. Kudeaketa hori efikaza eta efizientea izango da, Batasunaren finantza-interesekin bat datorrena, eta, nolanahi ere, guztiz lerrokatuta egongo da baldintza berberetan formulatzen den kudeaketa teknologiko edo digitalarekin, eta bereziko begiratuko dio xahutzerik eta Administrazioaren baliabideen erabilera desegokirik ez izateari, bereziki baliabide teknologikoak edo Administrazioaren baliabide materialak. Efizientzia-helburu hori plangintza estrategiko eta operatiboko, berrikuntzako eta etengabeko hobekuntzako prozesuen bidez sustatuko da, proiektuak eta lortutako helburuak ebaluatuz, bai eta zuzendariek eta enplegatu publikoek egindako zereginak zer-nola egiten dituzten ebaluatuz ere, Europako funtsak kudeatzeko sistemaren arabera.

8.3.- Gardentasuna.

Gardentasunaren kultura funtsezkoa da Europako funtsak kudeatzen aritzeko. Gardentasuna, beraz, funts horien kudeaketa-sistemaren parte den printzipio bat da, egungo arau-esparru orokorrean ezarritakoaren arabera, bai eta kontratazio publikoaren, dirulaguntzen, esparru ekonomiko-finantzarioaren edo langileen kudeaketaren erregulazioan ezarritakoaren arabera ere. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaien bati lotutako proiektu, azpi-proiektu edo jarduketan kudeaketan kontu emateak berezkoa du gardentasuna. Protokolo honen mende diren langileen jardun profesionalak gardentasun-printzipioaren araberrako eginkizunak eta zereginak betetzea izango du gida. Nolanahi ere, gardentasuna bereziki sustatuko da kontratazio publikoaren prozeduretan, dagokion legerian xedatutakoaren arabera.

8.4.- Datu pertsonalak babestea.

Europako funtsen kudeaketak, kasu jakin batzuetan, datu pertsonalen erabilera masiboa edo datu pertsonalen gurutzaketa ekarriko du, administrazio-irregulartasunen, iruzurren, ustelkeriaren edo interes-gatazken kasu hipotetikoak ikertzeko edo aztertze, batez ere jardunbide edo patologia horiek detektatzeko. Datu pertsonalak eskuratzeko bidea izatea datuak babesteko arloan indarrean den araudiak eraenduko du beti (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoa). Iruzurra detektatzeko datu-baseak erabiltzea –Dirulaguntzen Datu Base Nazionala (BNSD), Gizarte Segurantzaren datu-baseak edo Zerga Agentziarenak, besteak beste– arau-esparru horrek babesten du, betiere haien helburuak interes publikokoak badira. Bestalde, datuak aztertze edo arriskuak puntuatzeko tresnen erabilera (ARACHNE, DAISY eta abar) datuak babesteko Europako eta Estatuko araudian jasotako printzipio eta arauetara egokitu beharko da; nahiz eta arriskuen ikuspegiaren premisen pean, tratamenduaren jardueren erregistro batzuk ezartzeko bidea ere izango den, bai eta segurtasun-neurri egokiak eta ezin hobeak hartzeko, datuak babesteko ordezkariaren jardueraren garapena bermatzeko –prozesu horiek indarrean dagoen araudira egokitzea bermatzeko–, arriskuak behar bezala aztertze eta, hala badagokio, inaktuaren ebaluazioak egiteko ere.

8.5.- Europako funtsen kudeaketa eta 2030 Agenda.

Europako funtsen kudeaketa Garapen Jasangarrirako Helburuen betetze-mailaren araberrakoa izango da, eta, bereziki, inpaktu ekologikoak minimizatzen eta ingurumena eta biodibertsitatea zaintzen laguntzen duten helburu guztien araberrakoa. Trantsizio berdea Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren zutabeetako bat da, eta, hala, hark gidatuko du ardatz horren inguruan diren Europako funtsak kudeatzen aritzen diren arduradunen eta kudeatzaileen jarduna ere. Era berean, protokolo honen mende diren langileek GJHak betetzen ere lagunduko dute, jarduera sozialki arduratsuaren bidez; enplegua, aniztasuna bermatzea eta garapen jasangarria sustatuz 2030 Agendarekin bat, bereziki kontratazio publikoari, dirulaguntzei eta erakundearen eremuan enplegua sortzeari dagokienez, bai eta lankidetzaren publiko-pribaturako formulei dagokienez ere. Orobat, Europako funtsen bidez finantzaturako Suspertze Planaren osagaietako proiektu, azpi-proiektu edo jardueren kudeaketak bereziki kontuan hartuko du lurralde eta gizarte kohesioa eta genero-berdintasuna izatea.

8.6.- Zuzendari eta profesionalen erantzukizuna Europako funtsen kudeaketan

Dituzten eginkizunen barruan Europako funtsen kudeaketan parte hartzen duten zuzendaritzako langileek eta enplegatu publikoek, hurrenez hurren, zuzendaritza edo erantzukizun profesional osoz jardungo dute. Zuzendaritza erantzukizunak eta erantzukizun profesionalak esleitutako eginkizunei dedikazio berezia jartzea

dakarte, betiere kudeaketa, prozedura edo izapide bakoitzak dakartzan interesak eta jarrerak baloratuz, edozein proposamen edo txosten arrazoituz, eta, betiere, eginkizun horiek gaizki betetzeak eta norberaren jokabide txarrak dakartzan ondorioak bere gain hartuz. Bai zuzendaritzaren kudeaketa, bai eta enplegatu publikoena ere, agintari arduradunen eta kudeaketakoen jarraipenaren mende izango da, eta mugariak eta helburuak betetzearen gainean aldizka-aldizka txosten batzuk egin eta ebaluatzearen mende, eta, nolanahi ere, Europako funtsak kudeatzen dituzten administrazio-unitateen arduradunek, kontuak eman beharko dituzte, dagozkien kudeaketa eta betetze txostenetan azaldutakoaren arabera, batez ere aurreikusitako helburuak lortu ezin izan badira. Era berean, funts horiek erabiltzekoan izan diren gorabeheren erantzule ere izango dira, bereziki irregulartasunen, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken prebentzioari, detekzioari eta zuzenketari dagokienez.

IV.- INTERES-GATAZKETAN INPARTZIALTASUN ETA OBJEKTIBOTASUN BALIOAK IZATEKO JOKABIDE-ARAUAK

9.- Inpartzialtasun eta objektibotasun balioei lotutako jokabide-arauak, Europako funtsak erabiltzekoan ordezkari-tz-karguei eta enplegatu publikoei zuzendutako opariei, esku-erakutsiei edo kortesiei eta sor daitezkeen interes-gatazkei buruzkoak.

9.1.- Europako funtsetatik datozen baliabideei buruzko erabakiak hartzeko eta funts horiek erabiltzeko prozesuetan parte hartzen duten ordezkari-tz-kargudunek eta enplegatu publikoek jokabide-arau hauek bete behar dituzte beren jardunak egitekoan:

a) Kontratazio publikoko organoetan parte hartzen dutenek edo parte hartu dezaketenen ez dute, inola ere, onartuko lizitazio prozesuetan parte hartzen duten edo parte hartu dezaketen pertsona, enpresa nahiz erakundeez zuzenean edo zeharka emandako inolako opari, esku-erakutsi edo kortesiarik, eta hala jokatu beharko dute Udal Administrazioaren hornitzaile izan daitezkeenekin ere.

b) Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuan, opariak, esku-erakutsiak edo kortesiak materialak badira, berehala itzuliko zaizkie haiek eskaini dituzten pertsona, enpresa edo erakundeei; beste mota bateko opariak-edo badira, ez dira onartuko. Itzultzea ezinezkoa bada, Udalaren bulegoetan utziko dira, zertarako erabiliko diren erabaki arte. Edozein onura pertsonal oparizat, esku-erakutsizat edo kortesiatzat hartuko da, baldin eta lehentasunezko tratu bereizia ekartzen badu berekin eta pertsonaren ondarea handitzen badu, edo objektiboki justifikatu gabeko abantailaren bat badakar kargu publiko, funtzionario edo enplegatu publikoarentzat, erakundetik kanpoko hirugarren pertsona edo erakunderen baten jokaera baten ondorioz.

c) Funts horien erabileran edo zertarakoaren kudeaketan parte hartzen dutenek edo parte har dezaketenen, kontratazio organoetan parte hartzen ez badute edo parte hartu ezin badute, ez daukate edozein kontratu modalitatearen bidez ere udal administrazioaren hornitzaile izan daitezkeen pertsona, enpresa edo erakundetatik datorren opari, esku-erakutsi edo kortesiarik jasotzerik. Opariak edo esku-erakutsiak onartu ahal izateko, erabilera edo uso sozialari dagozkionak izan behar dira, eta inolaz ere ez daukate Europako funtsetatik etortitako baliabideez zuzenean edo zeharka baliatzeko modua izan dezaketen pertsona, enpresa edo erakundeez –ez haiek berek, ez haien familiakoek edo izatezko bikotekideek– emandakoak izaterik.

d) Aurreko arauaren aplikazio eremu subjektiboa mugatzeko, Europako Batzordearen 2021/C 121/01 Komunikazioan, interes gatazkak kudeatzeko orientabideei buruzkoan, zehaztutakoa izango da kontuan.

9.2.- Udalaren ordezkari-tz-karguek eta enplegatu publikoek Europako funtsak erabiltzea dela-eta izan ditzaketen interes-gatazkak, beren irismenari eta aurreikuspenei dagokienez, Europar Batasuneko Finantza Erregelamenduaren 61. artikuluan ezarritakoari lotuko zaizkio, eta haien irismena Batzordearen 2012/C 121/01 Komunikazioan ezarritakoaren arabera interpretatuko da.

9.3.- Aurreko arauen aplikazioari eta irismenari buruzko edozein zalantza ezarritako bideen bitartez planteatu beharko zaizkio Integritate Batzordeari .

V.- INTEGRITATE-PROTOKOLOAREN GAINEKO PRESTAKUNTZA ETA HEDAPENA

10.- Integritatea sustatu, hedatu eta arlo horretako prestakuntza ematea. Etengabeko prestakuntzako programak

10.1.- Erakundeak urtero sartuko ditu etengabeko prestakuntzako programetan protokolo hau zabaltzeko prestakuntza-ekintzak, aurrez aurrekoak, erdi-presentzialak edo birtualak. Batez ere, integritate publikoari buruzko prestakuntza emango da, arreta berezia jarritz kontratazio publikoaren, dirulaguntzen, kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta langileen kudeaketaren arloetan, Europako funtsen erabilerari dagokienez.

10.2.- Bestalde, urtero sustatuko dira lantegiak, hitzaldiak edo dibulgazio jarduerak egiteko ekintzak; esparru publikoko gai etikoak edo integritatekoak, interes-gatazkak eta ustelkeriaren aurkako borroka aztertzeak.

11.- Erakundean integritate-politika hedatzeko eta prebenitzeko beste sistema batzuk.

11.1.- Aurreko paragrafoetan aurreikusitako neurriak ez eze, erakunde osoaren azpiegitura etikoa hobetzeko eta, bereziki, Europako funtsak hobeto kudeatzeko, diren neurri osagarri guztiak ere sustatuko dira, protokolo honen edukia hedatzen laguntzeko eta prebentzio-kultura edo arrisku-esparruak definitzeko kultura txertatzen laguntzeko, erakundearen integritatea babestu eta haren izen ona bermatzearren.

11.2.- Nolanahi ere, protokolo honen edukiaren berri emango da bitarteko elektronikoen bidez eta erakundearen web orriaren bidez.

VI.- AUZI ETIKOAK, KEXAK ETA SALAKETAK EBAZTEKO BARNE-KANALAK ETA PROZEDURAK

12.- Europako funtsen kudeaketari lotutako kontu etikoak edo kexak eta salaketak ebazteko kanalak, zirkuituak edo prozedurak sortzea.

12.1.- Erakundeak, Integritatearen eta lruzurraren aurkako Neurrien Planean ezarritakoarekin bat, jarri behar diren prozedurak, kanalak eta bideak jarriko ditu protokolo honetan jasotako balioen eta printzipioen interpretazioaren eta irismenaren inguruan sor daitezkeen arazo edo dilema etikoak izapidetzeko, bai eta horiek kontrastatzeko eta Europako funtsak erabiltzearekin lotutako jokabide, egitate edo inguruabarretan aplikatzeko ere.

Nolanahi ere, 2019/1937 Zuzentarauak, haren transposizio-arauak –arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa, 2023ko otsailaren 20ko 2/2023 Legea– eta protokolo honetan xedatutakoak agintzen dutenez, erakundeak barneko informazio-sistema bat du, eta horren barruan dago salaketen barne-kanala, araudi horren premisekin bat datorrena.

12.2.- Ahal dela, prozedura, kanal edo bide horiek bitarteko elektronikoen bidez bideratuko dira, 2019/1937 Zuzentaraan eta 2/2023 Legean ezarritako modalitateak albo batera utzi gabe.

12.3.- Kontu etikoak, kontsultak, dilemak, kexak eta salaketak Integritate Batzordeari aurkeztu beharko zaizkio.

12.4.- Kontu etikoak, kontsultak, dilemak eta kexak konfidentzialak izan daitezke, haien edukiaren eta sortzen dituzten pertsonen arabera. Horretarako, postontzi elektroniko bat izango da.

13.- Europako funtsen kudeaketarekin lotutako salaketak izapidetzea, 2019/1937 (EB) Zuzentaraia eta 2/2023 Legearen arabera.

13.1.- 2019/1397 (EB) Zuzentaraan eta 2/2023 Legean ezarritakoaren arabera Europako funtsen kudeaketaz planteatzen diren salaketak, protokolo honetan jasotako balioak eta printzipioak ez betetzearen edo omisioaren ondoriozkoak, bai eta legezko betebeharrak ez betetzearen ondoriozkoak ere, Donostiako Udalak onartutako prozeduraren arabera izapidetuko dira nahitaez. Prozedura hori Udalaren webgunean dago eskuragarri, salaketa-kanalera jotzeko estekarekin batera.

13.2.- Batzordeak salaketen unean uneko jarraipena egingo du, eta uneoro gordeko ditu salatzailearen konfidentzialtasuna eta jarduketaren sekretua. Salaketa jaso ondoren, sistemaren arduradunak salaketa jaso izanaren agiria bidaliko dio salatzaileari, salaketa jaso eta zazpi egun iragan baino lehen. Erantzuteko epea hiru hilabete izango da, gehienez; jaso izanaren agiria bidalitako egunetik aurrera.

13.3.- Kexa eta salaketa horiek izapidetzeko, kanal elektroniko bat dago Donostiako Udalaren webgunean, eta, haren bidez, salaketa telematikoak eta telefonikoak aurkez daitezke, eta udal bulegoetan agertzeko aukera ere badago.

13.4.- Integritate Batzordeak, jasotako informazioen eta haietatik etorritako barne-ikerketen erregistro-liburu bat izango du, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoan bertan jarritako eskakizunetara egokituko den liburua.

13.5.- Salaketen barne-kanala (EB) 2019/1937 Zuzentarauan eta 2/2023 Legean xedatutakora egokituko da, eta behar adinako arreta jarriko dio salatzailea babesteko eta Europar Batasuneko Zuzenbidean eta Barne-Zuzenbidean transposizioa egiteko arauetan aurreikusten diren berme guztiak zaintzeari.

13.6.- Erakundearen salaketen barne-kanalak ezaugarri hauek ditu:

- a) Kanal benetan eraginkorra, inpartziala eta efizientea da, prozedura eta emaitza aldetik.
- b) Salaketa-kanalaren sorrera irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak detektatzeko eta zuzentzeko neurrien barruan txertatuta du. Erakundearen Integritate Planean eta Iruzuraren Aurkako Neurrien Planean ezarri ziren neurri horiek.
- c) Salaketen barne-kanalaren erabilera lehenesten du, kanpoko kanalak erabili beharrean, kanal horien existentziaren eta haien osagarritasunaren berri eman beharra (webgunearen, kontratatzailearen profilaren edo beste edozein bitartekoren bidez) albo batera utzi gabe. Horrez gain, berehala jakinarazten die Iruzurra Koordinatzeko Zerbitzu Nazionalari eta agintari arduradunei, edo, hala badagokio, Fiskaltzari, larritasun inplizitua duten edo delitutzat jotzeko modukoak diren salaketa guztiak, baldin eta jarraitu, zuzendu eta, hala badagokio, jazartzeko salbuespenezko neurriak hartu beharra badakarte.
- d) Europako funtsen kudeaketaren barne-kanala erakundearen barruko informazio-sistema batean sartuta du, erakundearen azpiegitura etikoa hobetzeko.
- e) Barneko salaketa-kanalaren eta izapidetze-eginkizunen kudeaketa Integritate Planaren eta Iruzuraren aurkako Neurrien arduradun teknikoari esleitzen dio, organo horrek baitauzka 2019/1937 Zuzentarauak eta 2/2023 Legeak salaketen barne-kanal hori kudeatzeko eskatzen dituzten inpartzialtasuna, profesionaltasuna eta eskumena.
- f) Salaketen jarraipena egiten du, 2/2023 Zuzentarauan ezarritako epeetan eta han jasotako eskakizunekin.
- g) Egindako jarraipenaren berri ematen die salatzaileei ahalik eta azkarren; hiru hilabete pasatu baino lehenago, beti.
- h) Salaketa-prozedurak seguru eta salatzailearen konfidentzialtasuna errespetatuz izapidetzea bermatzen du.
- i) Salaketa-prozedura guztietan, datu pertsonalen babesa errespetatzen du, araudi erregulatzailean ezarritakoaren arabera (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoa).
- j) 2019/1937 (EB) Zuzentarauan eta 2/2023 Legean salatzailearen babesaz jarrita diren berme guzti-guztiak aplikatzen ditu, bai eta aplikatu beharreko Estatuko edo Autonomia-Erkidegoko legerian aurreikus daitezkeen guztiak ere.

13.7.- Kexak edo salaketak ondorio penalak edo zigortzaileak izan baditzake, arduradunak kexa edo salaketa egin duenaren sekretua eta anonimotasuna bermatuko ditu, eta indarrean den legeriaren arabera hartu behar diren neurriak hartu ere bai kexa egin duen pertsona babesteko, 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren eta 2/2023 Legearen xedapenekin bat.

13.8.- Integritate Batzordeak kontuen, kontsulten, arazoen edo dilemen planteamenduaren ondorioz emandako gomendio, proposamen eta txosten guztiak zabalduko ditu, bai eta kexen edo salaketen ondoriozkoak ere, baina betiere izenik gabe, haietan jasotako datu pertsonalak

kendu ondoren. Horrez gain, memoria bat egingo du urtero, eta Gobernu Batzarrari emango dio haren kontua.

VII.- PROTOKOLOAREN BERME-ORGANOA

141.- Integritate Batzordea.

14.1.- Integritate Batzordea da protokolo hau aplikatzen dela bermatzeko organoa.

14.2.- Integritate Batzordea hiru kidek osatzen dute. Integritate Plana eta Iruzuraren aurkako Neurriak kudeatzeko arduradun teknikoaren laguntza izango dute haiek, eta arduradun tekniko hura izango da batzorderen idazkaria ere. Hiru kide horiek alkateak izendatuko ditu; kargu publikoa edo zuzendaritzakoa izango da bat (hura izango da batzordeburua), funtzionarioa edo enplegatu publikoa izango da beste bat, eta administrazioetik kanpoko hirugarrena. Hirugarren horrek eremu publikoan eta pribatuan esperientzia profesional egiaztatua izan behar du (erretiroa hartuta den funtzionarioa edo goi-kargu edo zuzendaria izandakoa izan daiteke; baina, baldintza eta betekizun horiek berberak izango ditu hark ere), edo unibertsitateko irakaslea, bestela, pertsonen kudeaketa eta antolaketa gaietakoa, edo esparru horretan aintzatespen akademikoa edo profesionala duen pertsona.

14.3.- Organoaren osaera murrizta dela eta, eta erabakiak hartzerakoan paralisia saihesteko, Alkatetzak ordezeko bat izendatuko du kide titular bakoitzeko. Ordezkapen-araubidea automatikoki aktibatuko da lanpostu hutsen, absentzien, gaixotasunen, oporren, eszedentzien edo interes-gatazken ondorioz kide bat abstenitu behar den kasuetan.

15.- Integritate Batzordearen eginkizunak.

15.1.- Protokolo honen aplikazio-eremuak kargu publikodunen, zuzendarien eta Europako funtsak kudeatzen dituzten enplegatu publikoen gaineko eskumenak bakarrik ditu. Alde horretatik, hauek dira Integritate Batzordearen eginkizunak:

a) Gobernu-organoei, zuzendaritzako langileei eta enplegatu publikoei aholku ematea Europako funtsen kudeaketaren integritatearen arloan. Aholkularitza lan horiek kode hau aplikatzearen gainean planteatzen zaizkion zalantzak, kontsultak, dilemak edo kexak ebatziz egin ahal izango ditu.

b) Aurkeztutako salaketak eta kexak izapidetzea, 2019/1937 (EB) Zuzentarauarekin eta 2/2023 Legearekin bat etorritik. Horretarako, Integritate Batzordeko kideetako bat izendatu ahal izango da instruktore edo, hala badagokio, txostengile.

c) Europako funtsak kudeatzeko integritatearen gaineko gomendioak egitea, alor horietan arduradun diren erakundeetako goi mailako organoentzat eta zuzendaritzakoeentzat.

d) Sortzen diren interes-gatazkek ezagutu eta aztertzea, dela ofizioz, hierarkian gorago dagoenak eskatuta edo baten batek kontsulta, kexa edo salaketa eginda. Horretarako, proposamen edo gomendio arrazoitu bat egingo zaio hierarkian gorago dagoenari, dagokion erabakia hartzeko hark. Hala badagokio, izendatutako eginkizunetatik abstenitzeko edo bereizteko ebazpena egitea ere izan daiteke, inpartzialtasun eta objektibotasun irudiari eusteko, bai eta Europako Batasunaren finantza-interesak babesteko ere.

d) Integritatearen arloko hedapen eta prestakuntza proposamenak egitea.

e) Salaketak Europako funtsak kudeatzeko Iruzuraren Aurkako Neurrien Planaren 2.3.1.3 b) puntuan azaldutakoari jarraikiz tratatzea.

f) Integritate Batzordearen aurrean egiten diren prozeduretan inpartzialtasun, objektibotasun, konfidentzialtasun, datu pertsonalen babesa eta jarduketan sekretua betetzen direla bermatzea.

g) Salatzaile edo informatzaileari izan behar duen babesa izatea bermatzea, 2019/1937 (EB) Zuzentzarauan eta 2/2023 Legean ezarritakoaren arabera.

h) Dagozkion ikerketak eta kontrasteak egin eta gero, prebentzio-neurriak hartzeko proposamen arrazoituak egitea, baita langileak denbora batez edo betiko jarduketetatik nahiz esku-hartzeetatik bereiztea, benetako edo balizko interes-gatazkak sor daitezkeen kudeaketa-eremuetatik, baita itxura hutsekoak badira ere, erakundearen izen onari eraginez gero. Proposamenak organo eskudunari helaraziko zaizkio, balora ditzan eta, hala badagokio, hartu behar den erabakia har dezan.

i) Integritate Batzordearen jarduerari buruzko urteko txostena egitea, kode honek agindutakoari jarriki.

j) Urtero, protokolo hau aplikatzeko gida bat egitea, han zehaztea, aztertutako kasuen arabera, testu honetan ezarritako balio eta printzipioei eman dakiekeen irismena eta aplikazioa.

k) Protokolo honen erreformak eta egokitzapenak proposatzea, bai eta haren aplikazioa erakunde osora eta haren langileetara hedatzea ere, bereziki salaketen barne-kanalari dagokionez, salatzailerak babesteko 2019/1937 (EB) Zuzentaraua eta 2/2023 Legea benetan betetzeko.

15.2.- Hautemandako ez-betetzeak diziplinazko ondorioak, beste mota bateko arau-hauste administratiboak edo arau-hauste penalak eragin baditzake, Integritate Batzordeak, ondorioak jasan ditzakeen pertsonari entzun ondoren, txosten edo proposamen bat egingo du eta organo eskudunari helaraziko dio, zehapen-espeditente bat hastea bidezkoa den edo jarduketak beste edozein kontrol-erakunderi edo Fiskaltzari igortzea egokia den ebaluatu dezan hark.

15.3.- Integritate Batzordeak funtzionamenduko barne-araudi propio bat du. Gardentasunaren Atariaren bidez zabalduko da.

16.- INTEGRITATE-PROTOKOLOA ZABALTZEA

16.1- Integritate Batzordeak proposatu eta Gobernu Batzarrak hala erabakiz gero, protokolo honen aplikazioa kargu publiko guztietara (ordezkatzailerak eta exekutiboak) zabaldu ahal izango da, bai eta zuzendaritzako eta behin-behineko langileetara eta enplegatu publikoetara ere, Europako funtsen kudeaketarekin zuzeneko edo zeharkako harremana izan badezakete haiek. Bestalde, libre izango da protokoloa egokitzea, dela testuan bertan txertatuz egokitzapenak, dela eranskin batean bilduta.

16.2.- Era berean, protokolo hau, dagokion berme-organismoaren balioei, printzipioei eta erregulazioari dagokienez, erakundearen etika eta jokabide kodea egiteko oinarria izango da horretarako garaia iritsitakoan, edo, hala badagokio, integritate-sisteman sartzen diren jokabide-kodeak egiteko oinarria.

16.3.- Horretarako, Udalak, planean ezarritako epeetan, eta akordio baten bidez, etika edo jokabide kode bat edo zenbait jokabide kode prestatu eta onartuko ditu, eta egokitu ere bai jasota ez dauden balioak edo printzipioak edukiari eransteko edo enuntziatuak aldatzeko, salbu eta kodeari protokolo hau eranstean badiote, egin beharreko egokitzapenak eginda.